

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

369

Martxoak 15, 2020

3 Erreportajea: Emakumeak merkataritzan

4-5 Martxoaren 8a Irunen

6 Folder Irun

7 Elkarrizketa: Felix Manso

8 Kirolak: Bidasoa

9 Kirolak: BAT Miliak Osasunaren Alde

10 Kolaborazioa: Ainara Maya

11 Haurren Leioa / denbora-pasak

12 Gazteen lanak / Euskara irunen barrena

13 Beti Gazte: Hip hop eguna

14 iGazte

15 Agenda



Argazkia: Estudio Gover

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



1920ko martxoaren 21ean argitaratu zen "El Bidasoa" aldizkariaren 238. zenbakia. Lehen orrialdearen hasieran Juan Bautista Olaiz eta Echeverriaren eskela handi bat ageri da. Jarraian, "RE-LA-MI-DO"-k bere azken kronikaren harira sortutako iskanbila aipatzen du orrialde erdia betetzen duen idatzi batean eta gaia argitzeko argudioak ematen ditu. "Si te pica ..." tituluarekin baztango gaixotasuna ekiditeko jarritako txertoez hitz egiten du "T." letrarekin sinatzen duen idazleak, aberats eta pobreen artean egin ohi diren desberdintasunak aipatzeko. Ondoren, aurreko zenbakian Lamonthek idatzitako artikuluan futbol irundarraz hitz egiterakoan zabaldutako gezurrak ezeztatzen ditu Real Unioneko zuzendaritzako kide batek.

Kirol kronikan Real Union Bastidiene taldearen kontra jokatutako partiduen emaitza komentatzen da eta egutegiko hurrengo kirol hitzorduak aipatzen dira. Ostean, hirian tuberkulosiaren ondorioz hildako jende kopuru handiaz hitz egiten da eta gaiak sortutako azaldura aipatzen da. Angel Rosado Aouñak "Momentos de la Ciudad" testu bildumaren 4. atala argitaratzen du, merkatuaz, alde zaharraz eta beste lekuetaz hitz egiten da.

Junito Legarreta Real Unioneko presidentearen kargu uztearen berri ematen da eta, agur moduan, egingo zaion omenaldia antolatzekeko diru ekarpenen zerrenda argitaratzen da. Pedro Alvarez Quinteroren heriotzaren harira, bere bizitza laburbiltzen duen artikulua irakur daiteke. Ondoren, "En el municipio", "Hace años ..." eta "Noticias" atalak irakur daitezke, 238. zenbakia publizitate orrialdearekin itxi aurretik.

G38492: Merkatuaren plaza, egun Genaro Echeandia bezala ezagutzen dena, XX. mendean.

G25758: Sancho de Urbinak fundatutako ospitale zaharra, egun Euskaltegi eta Menchu Gal museoaren egoitza dena.

G48945: Jesus kalea, 1910. urtea baino lehen ateratako argazki batean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad SL
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Emakumeak Irungo merkataritzan erreferente

Azken hamarkadetan zehar emakumeek lotura estua izan dute hiriko merkataritzarekin. Hain zuzen ere, Irunen ibilbide historiko luzeko denden erakusmahai atzetik haien negozioak aurrera ateratzeko borrokatu dute, garai berrietara egokituz eta unean uneko erronkei aurre eginez.

Hurbileko merkataritza bizirik mantentzeko borrokaren erakusle garbia da Nekane Arostegi, Irunen Nekane izenaren azpian emakumeentzako bi arropa-denda dazukan emakumea. Nekane 1986. urtean ireki zuen Jose Eguino kaleko 7. zenbakian kokatutako bere lehen denda Irunen eta, beranduago, bigarren denda bat ireki zuen Colon ibilbideko 27. zenbakian. Colon Pasealekuaren atzeko aldean, Luis Mariano kaleko 10. zenbakian Essere izeneko denda propioa ireki zuen 2016. urtean Beatriz Iglesiasek.

Lehen urteetako erronkak

Beatriz Iglesiasek esperientzia bidelagun izan zuen Essere denda zabaltzeko erabakia hartu zuenean. Hain zuzen ere, aurreko 17 urteak Boutique Victoria dendan lanean eman baitzituen. Nekane, ordea, ostalaritzan ibilitakoa zen, baina, arropa denda zabaltzeko erabakia hartu zuen, amak ehungintzaren sektorean izandako esperientzia eta lanpostuarengatik erakarrita sentitu ondoren.

Denda ireki eta negozioa aurrera ateratzeko lehen urte horiek ez ziren errazak izan. Hala ere, Beatriz Iglesiasek langabezia egoera alde batera utzi eta proiektu berri bat abiatzeko aukera eman zion dendaren irekierak. Luis Marianoko dendariak azaldu duenez, "zalantzak sortzeko denbora gutxi izan nuen, izan ere, otsailaren 6an nire aurreko kontratua amaitu eta martxoaren 17an, berriz, nire denda propioa ireki nuelako". Nekane Arostegi, ordea, bi semeren ama zen lehenengo denda ireki zuenean, baina, bere hitzetan "ilusio eta gogoek lehenengo urte horietan denda aurrera ateratzen lagundu ninduten". Modu hoentan, zailtasunak alde batera utzita, negozio propio bat izateak eragiten duen askatasun eta eraberritze aukerez gozatzeko modua topatu zuten bi emakume dendari hauek.

Bilakaera etengabea

Saltokiak garai ezberdinetan ireki arren, bi emakumezkoentzako arropa-denda hauek Irungo merkataritzak azken urteetan jasandako bilakaeraren lekuko izan dira. Nekane Arostegik azaldu duenez, "Irungo merkataritzaren aldaketa garrantzitsuena azken 5 urteetan zehar gertatu da". Beatriz Iglesiasek, berriz, gogoratu du Irun historian zehar merkataritzaren sektorean hiri erreferentea izan dela, nabarmenduz, "probintziako hiri eta herri desberdinetako jendea Irunera erosketak egitera etortzen zen duela ez hainbeste urte". Zentzu horretan, emakumeek historian zehar Irungo denda askoren erakusmahaien atzen egon dira Essere dendako Beatriz Iglesiasek azaldu duenez. Nekane Arostegik, ordea, "emakumearen irudia edozein sektoretan garrantzitsua dela" azpimarratu du.

Merkataritzan izandako aldaketari loturik, bi emakume dendariak azken hamarkadan hiri inguruan kokatu diren merkataritza-gune handiak, hirian sartu diren frankiziak eta egun gauzak interneten erosteko dagoen joera aipatu dituzte. Izan ere, faktore hauek kontutan hartu gabe, ezinezkoa da egun Irungo Merkataritzak bizi duen egoera ulertzea.

Emakumeak emakumeentzat

Essere eta Nekane emakumeentzako arropa eskaintzen duten bi denda Irundar dira, merkatuaren zabalpen garai honetan haien negozioa ezberdintzeko apustu garbia egin dutenak. Bere dendetan adin-ertaineko emakume-



entzako arropa proposamenak ekartzeko ahalegindu da betidanik Nekane Arostegi. "Merkataritzarekin batera, emakumeen janzkera asko aldatu da azken urteetan". Beatriz Iglesiasek, berriz, bere dendan marka eta estilo eskaintza zabala biltzen saiatzen da.

Bi denda irundar hauek emakumeak dituzte helburu. Bezeroen beharrei dagokionez, Nekane Arostegi eta Beatriz Iglesiasek bezeroek hurbiltasuna gehien baloratzen dutena dela onartu dute aho batez. "Une honetan arreta pertsonalizatua da dendari txikien altxorra", Beatriz Iglesiasek adierazi duenez. Gainera, bi dendek emakumeentzako arropa saltzen denez, erosleek emakume dendariaren aholkuak gustora jasotzen dituztela azaldu du Nekane Arostegik: "Eroso sentitzen dira gurekin, lagun batekin erosketak egingo balituzte bezala".

Etorkizun ezezaguna

Merkatari txikiak momentuan bizi dituzten zailtasunetaz harago, etorkizun ezezaguna da istorio honetako mamua. Beatriz Iglesiasek ustetan garrantzitsua da hiria erakargarri egiteko ekintza ezberdinak antolatzea bertan, adibidez, kontzertuak, antzerkiak edo familientzako ekintzak. Horrela, hiriko bazter ezberdinak erakargarri bihurtzea lortuko da. Gainera, merkatarien batasuna ezinbestekoa ikusten du egoerari buelta emateko.

Nekane Arostegik, inguruko instituzio eta entitateen babesgabatasunaz gainera, erosleek arduraz azpimarratzen du, "azken finean, oraindik kasu askotan emakumeak dira erosketak egiteaz arduratzen direnak eta gure esku dago gauzak non erosi nahi ditugun erabakitzea". Zentzu horretan, hirian dendak zabalik mantentzeko, ezinbestekoa da inguruko dendetan erosketak egitea merkataritza bizirik mantentzeko.

a **Olaizola**
INMOBILIARIA AGENTZIA

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Iraultza moreak Irungo kalea



Martxoaren 8an hainbat ekintza antolatu ziren Irunen Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Hortaz gain, egunean bertan antolatutako ekintzez gain, martxoaren 8aren aurreko eta ondorengo egunetan hiriko elkarte ezberdinek beste hainbat ekintza antolatu dituzte elkarlanean.

Eguneko lehen ekitaldia martxoaren 8ko goizeko 11:00etan hasi zen Irungo Udaleko Berdintasun Batzordeak deitutako kontzentrazioarekin. Elkarretaratzea San Juan plazan egin zen, Irungo udaletxearen aurrean. Hortaz gain, udaletxeko balkoian begizta morea jarri zen eta more koloreko argiarekin udaletxeko fatxada argitu zen martxoaren 7 eta 8ko gauean. Kontzentrazioa hasiera batean goizeko 11:45etan egitekoa zen, baina, azkenean, elkarretaratzea goizeko 11:00etara aurreratu zen, ekitaldia goiz horretarako egindako beste deialdi batzuekin bateratu ahal izateko.

Martxoaren 8ko bigarren ekintza Txingudi eskualdeko hiru hiriak elkartu zituen mobilizazioa izan zen. Bidasoako Asanblada Feministak goizeko 11:30etan Fratzia eta Espainia arteko mugan kokatutako Santiago Zubian el-

kartzeko deialdia luzatu zuen. Hendaiatik abiatuta, mobilizazioak Iparralde etorbidea igo, Colon pasealekua zeharkatu eta Hondarribia kalean behera abiatu zen, Hondarribiko bidea hartu eta Portu auzoraino iristeko.

Egun bat baino gehiago

Martxoaren 8an bertan antolatutako ekintzez gainera, otsailaren 28tik martxoaren 19ra bitarte Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotutako beste zeinbait ekintza antolatu dira Irunen. Horretarako, Irungo Udalaren lanaz gainera, Argoiak, Parean, Uxo, Bidasoa Elkarte Feminista eta Gaurko Andreak elkartearen lankidetzaz ezinbestekoa izan da. Horrela, era askotariko ekintzak antolatu dituzte: tailerrak, bazkariak, pelikula emanaldiak, antzerkiak, dokumentalak, erakusketak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak eta poema emanaldiak, besteak beste. Emakumeak izan dira ekintza guzti horien ardatza.

Azken ekintzak

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, ordea, hainbat ekintza egingo dira datozen egunetan zehar Irunen. Adibidez, martxoaren 13an, ostiralean, Bidasoaldeko Elkarte Feministak "¿Mejoran las asociaciones la vida de las mujeres? El empoderamiento en los espacios

colectivos" hitzaldia antolatuko du eta Palmera Montero Guneko 2. aretoan egingo da.

Martxoaren 14ean, larunbatean, arratsaldeko 17:00 Concepcion Arenalek, kartzeletako bisitariak bideoforo eta solasaldia eskainiko du. Ekintza Behobiako Adinekoentzako Gizarte Zentroan egingo da, Bidasoako Elkarte Feministaren antolakuntzari esker.

Asteazkenean, martxoaren 18an, "5 horas con Mario" antzerkiak gozatzeko aukera izango dute arratsaldeko 17:00etan Argoiak elkartearen egoitzara hurbiltzen direnek. Rosa Gómez arduratuko da antzezlanaren interpretazioaz Argoiak elkarteak antolatutako ekintza honetan.

Azkenik, martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzei amaiera emateko, martxoaren 19an Emakumearen Ahotza egitasmoaren barneko III. zikloa egingo da. Zineforumean "La lucha de las mujeres argentinas y latinas por la despenalización del aborto" gaia landuko du Patricia Viviana Ponck. Zineforuma Oiaso Museoa egingo da, arratsaldeko 19:00etan eta Gaurko Andreak elkarteak izango da jardunaldiaren antolatzailea.

Ik hartu ditu martxoaren 8an



Asun Casasola Ipuin Lehiaketako irabazleak

Asun Casasola Ipuin Lehiaketa Irunen Emakumearen Nazioarteko Eguna inguruan antolatutako beste ekintzetako bat da. Lehiaketaren sariak martxoaren 5eko 19:00etan banatu ziren Irungo Kale Nagusian kokatutako Brönte Liburudendan. Lehiaketaren V. edizioak aurretik antolatutako edizioen egitura mantendu du. Hortaz, guztira, 4 kategoria bereiztu dira, lehiaketara aurkeztutako testuen hizkuntzaren eta parte-hartzaileen adinaren arabera banatu direnak.

Helduen kategorian, euskarazko ipuin irabazlea Miren Usabiaga Artolaren idatzia izan da eta gaztelarazko testu irabazlearen egilea Maria Antonia González García izan da. Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren V. edizioak gazteei haien sormenak lehiaketara aurkezteko aukera eman die. Gazteen kategoriaren barnean, euskaraz idatzitako ipuin irabazlea Uxue Azkue Muxikaren lana eta gaztelarazkoa, aldiz, Julia Alia Castillejosena izan da garaile.

Saritutako idatziez gain, antolakuntza oso pozik azaldu da lehiaketaren V. edizioak utzitako datuekin. Izan ere,

guztira 338 lan aurkeztu baitira lehiaketara, aurreko urteetan antolatutako lehiaketetako marka guztiak apurtuz. Gainera, antolakuntzak aurtengo parte hartzearekin bi helburu nagusi lortu direla azaldu du. Batetik, 2018 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker lehiaketa gazteei ireki ostean, idazle gazteen parte hartzea nabarmen hazi da, 12 eta 16 urte arteko gazteek idatzitako 110 ipuin jaso baitira. Bestetik, euskaraz idatzitako lan gehiago jaso dira eta kopurua aurkeztutako idatzien %25a izatea lortu da. Lehiaketara Euskal Herriko hiri eta herri desberdinetako biztanleek ipuinak bidaltzeaz gainera, Asun Casasola Ipuin Lehiaketak estatuko puntu ezberdinetatik eta baita munduko hainbat txokotatik (Kolonbia, Mexiko, Argentina, Brasil, Txile...) bidalitako ipuin proposamenak jasotzen ditu ere.

Errotik aldatu beharreko jarrerak

Gizartean gertatutako emakumeen ahulduntzeari loturik, emakumeen eskubideen aldarrikapenerako egunean bihurtu da martxoaren 8a. Martxoko zortzigarren egunean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen denetik, emakumeen askatasun eta eskubide berdintasunaren

aldeko aurrerapauso asko eman diren arren, oraindik gizartean gauza asko aldatu eta ezabatzeko beharra dago. Hain zuzen ere, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu baino bi egun lehenago Irungo Udalak aurreko astelehenean hirian gertatutako indarkeria matxista kasua salatzeko kontzentrazioa deitu baitzuen. Biktima 21 urteko bere bikotekidearengatik erasotua izan zen eta eraso gertatutako inguruan aurkitzen zen segurtasun pribatuko agente batek emakumearen ohiak entzun eta biktima laguntzea lortu zuen, Ertzaintzak erasotzailea atxilotzea lortu zuen bitartean. Gertatutakoa gaitzesteko udalak eraso matxista salatzeko kontzentrazioa deitu zuen martxoaren 6ko arratsaldeko 19:30etan San Juan plazan.

Azken hamarkadetan gizartean emakumeen alde lortutako lorpen garrantzitsuak horrelako gertakarien ondorioz ezerezean gelditzen direla iruditu arren, oraindik gizarteko ohiturak eraldatzen jarraitzeko lan asko egiteko dagoela agerian gelditzen da. Era honetan, etorkizunean berdintasunean oinarritutako gizarte seguru eta justuago bat eraikitzea posible izango da.

Folder

paper-dendak Luis Marianoko denda berria jasoko ditu bezeroak aurrerantzean



Martxoaren 9an Folder paper-dendak kokapen berria estreinatu zuen Irunen. Aurrerantzean Luis Marianoko 12.zenbakian kokatutako lokaletik bezeroen eskakizunak erantzuteko prest egongo dira. Ohiko bulegoko materiala eskaintzeaz gainera, merkatuko nobedadeak bezeroei hurbiltzeko ahalegin berezia egingo dutela azaldu du Rakel Lama-sek.

Noiz ireki zen Folder denda Irunen?

Hasieran CopyArt ireki genuen Irunen 2014. urtean eta lehenengo ideia negozioak kopia-denden bidea jarraitzea izan zen. Krisiarekin kopia-dendako lana asko jaitsi zen eta, orduan, Folder traspasso gisa hartzeko aukera agertu zen. Folder frankizia bat izan arren, aukera asko eskaintzen dizkizu eta paper-denda arrunt gisa ezinezkoa da eskaintza eta prezio horiek mantentzea. Jendeak Folder ondo ezagutzen du eta, horrela, egoerari buelta ematea lortu genuen.

Eskaintzak Folder denden ezaugarrietako bat dira?

Bai, atean izan ohi dugun katalogoan eskaintza eta prezio bereziak dauzkaten 500 produktu biltzen ditugu. Izan ere, ka-

talogoan ikus daitezkeen material asko duela aspaldiko prezioa mantentzen dute egun oraindik eta hori oso merkea da gaur egungo prezioarekin alderatuta.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Paper-dendako gauza guztietaz gainera, Folder bulego arloan espezializatua dago. Hortaz gain, kopia-dendako zerbitzuak ere dauzkagu (tamaina handi eta txikiko inpresioak, koadernaketak, plastifikazioak, ...), paperean egin daitezkeen ia guztia, liburuak izan ezik.

Kontsumitzaile partikularrez gainera, enpresekin ere lan egiten duzue?

Bai, nahiz eta Irungo dendaren kasuan asko ez landu. Hala ere, eskari handietan enpresentzat erakargarriak izan daitezkeen prezioak dauzkagu.

Zein da zuen dendaren berezitasuna?

Aspaldiko bezeroak dauzkagu eta, eskaintzez gainera, konfiantza asko dugu haiekin. Gauzak ondo egitea atsegin dugu eta atzetik dugun lan taldeari esker abantaila asko dauzkagula uste dut. Salmenta gehieneko garaiak iraila eta Gabonak izan ohi dira.

Zer da dendan gehien saltzen dena?

Tipex-ak, boligrafoak, ... markaren ara-

bera gauza batzuk edo besteak. Gainera, jendeak moden arabera gauza desberdinak eskatzen dizkigu. Sektorean hamasei urte eman ostean, garaiaren arabera hobeto edo okerrago saldu diren gauzak ikusi ditut. Dena dela, dendako artikuluak eguneratzen saiatzea eta moda berrietara egokitzea garrantzitsua da.

Zein da momentu honetako moda?

Momentu honetan pastel koloreak dauzkaten gauza guztiak modan daude. Hortaz gain, azken urteetan zehar Santoro panpinarekin lotutako gauzak oso ondo saldu dira.

Zein motako bezeroak daukazue?

Mota guztietako bezeroak dauzkagu, baina, egia da neskek paper-dendako produktuak bereziki atsegin dituztela eta gauzak noizean behin berritzea gustatzen zaiela.

Erosketa ohitura berriek dendan eraginik izan dute?

Apur bat. Hala ere, jendea dendara hurbildu, haien esperientziak kontatu eta, askotan, konturatu gabe gauzak interneten garestiago erosten dituztela entzuten dugu.

Nolatan erabaki duzue dendaren ko-

kapena aldatzea?

Egia esan, oso zaila izan da dena mugitzea eta denda berria egokitzen ari gara oraindik. Aspaldian lokala aldatzeko ideia buruan nuen, dendarentzako egokiagoa izango zen espazio bat aurkitzeko. Irungo lokalen prezioak oso garestiak dira eta guk, gainera, lokal handi bat behar genuen. Kokapen berri honetan oso pozik gaude, dendara argia sartzen zaigulako eta erakusleihu zabalak kaleko mugimendua ikusteko aukera ematen digulako. Gezurrak dirudi, baina, dendaren aldaketak lan karga handia du atzetik, beraz, etorkizunean denda kokapen honetan mantentzea espero dugu

“Dendako artikuluak eguneratzen saiatzea eta moda berrietara egokitzea garrantzitsua da”

Félix Manso, sukaldaria:

“Jatetxea ireki genuenetik bertako produktuak lantzeko apustua egin dugu”

Irungo Ibarlako auzoan kokatutako Félix Manso jatetxeak Repsol gidaliburuan “Sol” sari bat jaso du. Saria jaso ostean, Felix Mansok eta Sonia Garciak jatetxearen ohiko funtzionamenduari eutsi diote zorientasun mezuen artean, bezeroei urte-sasoiko lehengai eta maitasuna eskaintzen jarraitzeko.

Nola jakin zenuten zuen jatetxeak “Sol” saria jaso behar zuela?

Félix: Ez genekien. Aurten oso lasai geunden, ez genuelako imajinatzen data honetan izango zenik eta ia oporretan harrapatzen gaitu sarituak ginela jakin genuenean.

Ospe handiko saria jasotzeko poztasun bikoitza eragiten du?

Félix: Bai, aurretik beste bi “sol” izan nituen arren, jatetxea ireki genuenetik bertako produktuak lantzeko apustua egin dugu eta hortan jarraitzen dugu.

Zer sentitzen da horrelako sari batekin zure eguneroko lana saritzen denean?

Sonia: Oso pozik gaude egia esan. Eskerrak eman nahi ditugu jaso dugun sariarengatik eta zoriondu gaituen jende guztiarengatik, inguruan jendea ere oso pozik baitago. Felixek azaldu bezala, jendea gure etxean zorientatu egiten saiatzen gara. Felixek sukaldean eta ni jantokian lan egin arren, oso ondo moldatzen gara bezeroa eroso sentiarazteko. “Sol” sariak, berriz, ezagutzen ez gintuen jendearengana hurbildu gaitu.

Sariak izen handiko jatetxeen parekatzeak presiorik eragiten dizue?

Félix: Ez, hasieratik jatetxean maila berdina mantentzeko ahalegina egin dugulako. Hala ere, jatetxea Irunen kokatuta egoteaz asko poztzen gara. Bertako gastronomia defendatzen saiatu gara beti, hiria behar duen tokian kokatu eta eskualdean izan ditugun sukaldari onek iraganean erakutsitakoa itzultzeko.

Etorkizunean saria mantentzen edo gehiago lortzeko ahalegin berezia egingo duzue?

Sonia: Guk orain arte egin bezala, lanean jarraituko dugu. Presioa egunero berdina da, bezero bat atetik sartzen den unetik ebaluatuak sentitzen garelako. Jatetxea ez dago hiriko erdigunean, beraz, jendeak zerbaitegatik erabakitzen du guregana etortzea. Sariak ongietorriak dira, baina, bezeroen ongizatea da gure helburua.

Zuen ustez, zeintzuk izan dira saria jasotzeko arrazoiak?

Félix: Jatetxe txiki bat gara, betidanik jasangarritasunaren eta kilometro zero elikagaien aldeko apustua egin duena. Hortaz gain, hiriko gastronomia eta bertako dendari zein baserritarrak laguntzen saiatu gara. Kategoriako produktuak izateko apustua egin dugu eta, horregatik, askotan nahi baino prezio altuagoak ordaindu behar dira. Sukaldaritzak kalitatezko osagaiekin lotura estua du eta esfortzu etengabea eskatzen du, gero, jendeak mahaiaren inguruan familia giroan janariaz gozatzeko.

Jendeak sariak kontutan hartzen ditu jatetxeak aukeratzeko orduan?

Félix: Bai, saria jaso ostean, lan handiko denboraldia izan dugu. Jatetxean antolatzen ditugun jai eta ospakizun desberdinetan jendeak asko maite zaituela konturatzen zara eta hori oso garrantzitsua da.

Euskal Herria goi mailako sukaldaritzako asko duen lurraldea dela esango zenukete?

Sonia: Hemen gastronomia oso ona dela dakite eta ondo jateko asmoarekin datoz.

Félix: Euskal Herriak sukaldaritzako maila altua duela erakutsi du historian zehar. Kritikak jasoko ditugu noizean behin, baina, harrigarria da munduko leku ezberdinetako jendea zure jatetxeraino nola iristen den ikustea. Jendeak Euskal Herriko jatetxeen inguruan argitaratzen



Argazkia: Estudio Gover

diren publizitate eta artikuluguztiak irakurtzen ditu.

Zuen jatetxea kokapen berezia du Irungo hiriaren barnean?

Sonia: Askok gustatzen zaigu gure jatetxearen kokapena eta gure lan egiteko erarekin bat egiten du. Leku txikia izan arren, oso eroso da. Asteaz zehar karta zein eguneko menuarekin lan egiten dugu denboraldiko osagaiak landuz, dastatzeko menuaz gainera. Asteburuetan dastatzeko menua eta karta eskaintzen dugu eta ospakizun bereziak ere antolatzen ditugu.

Félix: Oso leku atsegina da, jatetxera sartzen zarenetik, atetik ateratzen zarenera arte. Hasieratik oso argi izan dugu gauzak nola egin nahi genituen.

Nolako egoera bizi du momentu honetan eskualdeko ostalaritzak?

Félix: Gure kasuan erritmo onean goaz, baina, denok norabide berean arraun egitea garrantzitsua da. Hurbileko merkataritza oso garrantzitsua da Irunentzat, hurbiltasunak inguruan familia txiki bat sortzea ahalbidetzen baitu. Guztia loturik dago, merkataritza ondo badago ostalaritza ondo joango da.

Zeintzuk dira Felix Manso jatetxearen etorkizuneko helburuak?

Félix: Poztasun handiz begiratzen dugu etorkizunera, lehenengo eguneko ilusio berdina mantentzen dugulako. Lana gure bizitzan bihurtu da eta oso pozik gaude horrela.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meak auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Urte historikoa Bidasoa Irun taldearentzat

Champions Leaguea eta Errege Kopa okertu arren, taldeak denboraldiko erronkei erantzuteko gai dela erakutsi du hasieratik

Erronkez betetako urte historikoari aurre egin behar izan dio Bidasoa Irun klubak. 2019-2020 denboraldiaren lehenengo zatian aldi berean estatu eta Europako txapelketan maila mantentzeko gai dela erakutsi du talde Bidasotarrak. Azken partiduetako beherakada eta kanporaketek, ordea, ez dute Jacobo Cuetararen mutilen taldea denboraldi hasieran markatutako helburuetatik aldentzea lortuko.

Europatik kanpo

Garaipenez betetako denboraldi hasiera baten ostean, talde irundarrak lehen estropezua VELUX EHF Champions Leaguearen barnean Orlen Wista Plock taldearen kontra jokaturako itzulerako partiduan izan zuen. Partidua jokatu aurretik Jacobo Cuetara entrenatzaileak joaneko partiduan utzitako 7 puntuetako aldea berreskuratzeko aukerak ikusten zituen. Artalekun jokaturako partiduen hasieran Bidasoa Irun talde bisitariaren atzean gelditzen zela zirudien arren, laster, irundarrek egoerari buelta eman eta markagailuan aurkariaren aurretik kokatzea lortu zuten. Azkenean, 00tsailaren 29an jokaturako partiduan jokalaria hori-urdinekin talka 24-19 irabaztea lortu bazuten ere, garaipen horrekin ez zuten joaneko partiduko emaitza orekatzeko alde nahikoa lortu.

Ondorioz, Bidasoa Irun taldeak ez zuen lortu VELUX EHF Champions Leagueko "Last 16" sailkapenean sartzea lortu eta Europako txapelketari agur esan zion talde euskaldunak. Aurtengo denboraldian Bidasoa Irun taldea aukera bikaina zuen duela 25 urte taldeak Europan historia egin ostean garaipena errepikatzeko. Hala ere, prentsaurrekoan Léo Renaud - David jokalaria bidasotarrak azaldu zuenez, "partidua amaierara arte borrokatu dugu eta kanporaketak ez digu urtean zehar lortutako guztia kenduko". Jacobo Cuetara entrenatzaileak, berriz, taldearen jarraitzaileak aipatu zituen "zaletu guztiei partiduan zehar eskubaloia inguruan sortutako festarengatik eskerrak eman nahi dizkiet".

"Gauzak gure alde egon ez arren, Europako plaza lortzen saiatuko gara"

Jacobo Cuetara, Bidasoa Iruneko entrenatzailea

XLV Errege Kopa

XLV Errege Kopan ere, Bidasoa Irun klubak bere maila erakusteko zailtasunak izan zituen BM Benidorm taldearen kontra jokaturako partiduan. Partiduaren hasieran bi taldeak oso parekatuak ibili ziren arren, pixkanaka Benidorm taldeak abantaila hartu zuen, baina, talkaren 51. minutuan aldea puntu bakarrera murriztea lortu zuten jokalaria irundarrek.

Kauldi Odriozola jokalaria azaldu du, "bigarren zatian 6 puntutako aldea murrizten saiatu gara, baina, ezinezkoa izan da nahi genuen guztia lortzea". Partidua 26-29 puntuko markagailuarekin amaitu ostean, Benidormeko taldeak lortu zuen kopako finalerdirako pasea.



Argazkiak: Estudio Gover

Partiduaren ostean, Jacobo Cuetara entrenatzaileak adierazi zuen, "ez dugu behar genuen maila eman eta hori da atsekabetsen gaituena". Presioaren faktorea aipatuta, taldea presioa kudeatzeko gai izan behar dela azaldu du entrenatzaileak. "Gauzak gure alde egon ez arren, Europako plaza lortzen saiatuko gara", azpimarratu du Jacobo Cuetara entrenatzaileak.

Era berean, entrenatzaileak taldeare lortzen gogoratu ditu, hala nola, Asobal Kopako finalistak izan direla, VELUX EHF Champions Leaguean errendimendu handia izan duela taldeak eta Ligara begira sailkapenean gora egiten ahaleginduko direla ziurtatu du.

Ustekabeko bisitaria

Bidasoak hurrengo erronka Helvetia Anaitasuna taldearen kontra izango du martxoaren 15ean eguerdiko 12:00etan Artalekun. Covid-19 birusaren ondorioz, ordea, Ministro Kontseiluan hartutako erabakien harira, Espainiako Eskubaloia Federazioak Sacyr ASOBAL Ligako 20. eta 21. partidua ate-itxiekien jokaturako direla erabaki du. Ondorioz, Artaleku kiroldegian Bidasoak jokaturako duen hurrengo partidua ETB1en ikusteko aukera egongo da. Era berean, Liberbank Cuenca taldearen kontrako partidua ere baldintza berdinetan jokaturako da. Bidasoak hurrengo partidu hauetan denboraldi hasieran erakutsitako maila berreskuratu eta zelaian erkautsi beharko du.

Miliak Osasunaren Alde lasterketaren 5. edizioa antolatu du Super Amara BATak martxoaren 22rako



Miliak Osasunaren Alde lasterketaren 5. edizioa antolatu du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak martxoaren 22rako. Jardunaldiak igandeko goiz osoa beteko du eta hiriko erdigunean egingo diren kirol proba ezberdinetan biztanleriaren parte handi batek bertan parte hartzeko aukera izango du. Lasterketez gainera, Igande Sasoi bat antolatuko da goiz osoan zehar Zabaltza plazako inguruan eta, Bidasoa Atletiko Taldeaz gainera, Bidasoa Xake Klubeke kideek parte hartuko dute bertan.

Miliak Osasunaren Alde jardunaldiko lehen ekintza goizeko 10:00etan hasiko den Ttipi-Ttapa ibilaldia izango da. Adineko pertsonen zuzendutako ekintza hau astean zehar Irun eta Hondarribian ibiltzeko elkartzen den taldearen eskutik antolatu dago. Miliako ibilbidea bi aldiz egin ostean, hirian barrena ibiliko dira, Zabaltza plazan emango zaien patata tortilla pintxo eta Aneto salda berekin amaitzeko.

Goizeko 10:45etan 4X1 Miliako Errelebo Lasterketari hasiera emango zaio. Kirol proba DBHko koadrila eta ikasleei zuzenduta dago, era honetan, adin horretako gazteen artean kirol ekintzak bultzatu eta sedentarismoa saihesteko. Korrikalari bakoitzak milia bateko distantzia egin beharko du lekukoa taldekideei pasa aurretik. Denbora lekukoan kokatutako txip baten bitartez neurtuko da eta azken emaitza 4 taldekideen denboren batura izango da. Goiz erdialdean, 11:30etan, kirol egokituko pertsonentzako tartea izango da. Salto Systems Milia Egokitan kirolariek hanbiketa eta gurpil-aulkien bitartez parte

hartuko dute. Ondoren, 11:45etan, berriz, anitzasun funtzionaleko pertsonen Mila Erdi Egokituko lasterketan parte hartuko dute. Probak parte hartze irekia izango du eta, aurreko urtean bezala, guraso eta klubeko atleten konpainian egingo dute ibilbidea. Horrela, ostegunetan Plaiaundin entrenatzen duen kirol egokituko taldea oso pozik dago proba honen antolaketarekin.

Eguerdiko 12:00tan bikoteen lasterketaren txanda izango da. Bikoite bakoitzak ibilbide osoa elkarrekin burutu beharko du eta bikoteak maskulinoak, femeninoak edo mistoak izan ahalko dira. 3 milietako lasterketa izango da eta, horretarako, 3 itzuli emango zaizkio ibilbideari. 12:45etan, berriz, jardunaldia borobiltzeko ekitaldi solidarioa izango da eta 3 euroko ekarpen solidarioa eginez edozeinek izango du proban parte hartzeko aukera. Diru ekarpenen %100a Gipuzkoako AECC elkarteak jasoko du. Izaera lehiakorrik gabeko proba izango da eta oinez eta korrika egin ahalko da. Ibon Muñoz Bidasoa Atletiko Taldeko kirol zuzendari eta gerenteak azaldu duenez, "kirol proba bat izateaz gainera, goiz osoa betetzen duen ekitaldi soziala da".

Izen-ematea

Jardunaldiko kirol-proba guztietarako izen-ematea Kirolprobak webgunearen bitartez egin ahalko da, baina, irteeran soilik Milia Solidarioarako izen emateak egiteko aukera egongo da soilik. Prezioei dagokienez, aurreko urteko tarifak bere horretan mantenduko dira. Horrela pertsonako prezioa 7 eurokoa izango da, errelebo taldeek 28 euro (eta pertsonako 9 euro) eta bikoteko las-

terketan parte hartzeko 18 euro ordaindu beharko dira. Hortaz gain, bikoteko lasterketan parte hartzen dutenek, Errelebo lasterketan dohainik parte hartzeko aukera izango dute, beste bikote batekin taldea osatuz gero.

Ibon Muñoz, Bidasoa Atletiko Taldeko kirol zuzendari eta gerenteak azaldu duenez, "errelebo lasterketa soila izatetik, miliaren inguruko izaera sozial zabaleko ekitaldian bihurtu da". Korrikalariaren poltsak probaren egunean bertan jasoko dira Zabaltza plazan goizeko 8:00etatik aurrera. Hortaz gain, jardunaldiaren harira, Bidasoa Atletiko Taldeak ohiko zerbitzuak eskainiko ditu, anoa-postua, kontsigna zerbitzuak eta aldagelak eta dutxak Artalekun.

"Errelebo lasterketa soila izatetik, miliaren inguruko izaera sozial zabaleko ekitaldian bihurtu da"

Ibon Muñoz, Bidasoa Atletiko Taldeko kirol zuzendari eta gerentea



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2ª
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



2020ko otsailaren 24a - Ainara Maia Urroz

EUSKAL EMAKUME IDAZLEA: ERAGILE ETA SORTZAILE

Auxtin Zamorak behin erran zidan bezala, denok gara poetak, idazle eta sortzaile, edo bederen izan gaitezke, eta denok maila berean gainera, ez bata bestea baino gehiago. Izan gaitezke denok poeta eta sortzaile, denok baitugu behar bat garena adierazteko, nahiz eta ez argitaratu.

Eta amatasunaz ez gara mintzatu, nahiz eta gaurko euskal literaturan aktualitatezko gaia izan. Niretzat hain da gai sentibera, minbera une honetan (eta azken hamarkada osoan), ene 43 urtetan, beti izan baitut amets ama izatea, baina ene maiteak utzi ninduen, ene seme-alaben aitak alegia. Errazagoa ote da gaur egun liburu bat argitaratzea, ama izatea baino?

Nago, horregatik, ama edo sortzaile izateagatik, egon dirrela itzalpean euskal emakume idazleak, amatasuna sor-

men naturalizat jo delako, eta beraz, meritutzat jo da ama eta sortzaile izatea berezko eta esfortzurik gabe izan ez duen gizonaren lana. Horrela, aintzat hartu da eta argitara emateko eginahal handi hori. Beharbada horregatik gizonak nahi duena egin ahal izan du, baina andreak ezin izan du nahi, egin nahi zuena.

Beharbada, amatasunaren naturaltasun hori ezbaian jarri ez delako gure erreferentzia literarioak ere maskulinoak dira, bai gizonengan, bai andreengan; denongan. Femeninoa dena etxe barrurako gordez eta horrekin batera ama-hizkuntzaren balioa eta transmisioa ere intimoa da, pribatuan egin beharreko sormen-lanketa eta idazketa.

Ama izateaz haratago, izatea eta sortzea amets zuten andreak historian ez dira ulertuak izan, eta sufritu nahiz

sufriarazi dute. Lou Andreas von Salomé idazleak esan zuen bezala, edozein delarik ere gure generoa (gizon edo andre izan gutxienekoa da), garenetik abiatuta, denok bilatu behar genuke gugan kontrako sexuaren ezaugarriak, gu guztiongan baititugu ezaugarri femeninoa eta maskulinoa.

Hauk eta gehiago izan dira Bergarako UNED-etik bueltan, "Euskal emakume idazlea: eragile eta sortzaile" eztabaida literariotik, ene kotxeko bakardadean egindako hausnarketa iragan inauteri-larunbatean. Datorren larunbatean otsailaren 29an azken saioa izanen dugu Bergaran goizeko hamarretan, eta gaiari buruzko marko teorikoa zehaztuko dugulakoan nago.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

El Pilar HH



DENBORA-PASAK

ZAZPI HITZ: IZENAK

A	D	G	E	X	A	N	P	O	S	D	S	A
T	I	Z	R	S	O	T	I	A	I	T	O	R
L	L	D	I	I	A	O	A	I	L	A	A	I
D	N	N	I	L	N	L	N	R	R	E	O	I
X	A	N	N	S	A	I	A	A	A	A	A	L
E	I	L	E	N	N	B	I	R	R	E	E	A
P	N	T	A	E	T	A	I	U	A	A	R	S
I	A	E	S	C	N	N	A	T	A	U	N	S
N	A	R	R	U	S	T	A	I	S	N	L	A
S	A	A	O	F	R	N	Z	A	N	E	C	N
R	I	A	A	S	N	S	U	A	I	H	U	A
R	A	T	A	E	O	M	N	A	A	O	O	S
A	A	X	R	O	I	S	S	S	A	I	A	A

			4	2			3	9	
	2						8	7	1
		3	5						4
3							9		
				3	4		7	5	8
		6	8						
6	4				8			9	
2		7		4			6		
	8	9							

Gexan, Naiara, Raul, Estibaliz, Ainhoa, Lassana, Aitor

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Intxixuak

Intxixuak mendiyan bizi zién. Ayako Arríyan. Intxixuak gaiztuak ziren.

Orréla esátentzuen nere amónak.

Gu gaztiak giñela esatentzigún neré amonak: «Intxixu oiék non'te dié, itxera etórri gábe orañik!»

Irungo Biarreka baserriko I.O.L. andereari jaso. Bere amona ere irundarra zen, Bekoerrota baserrikoa. Zuzenean hartua (1961-II-6). (El Bidasoa, 1961-II-25).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Lekaenea LH6

LEHENGO ETA GAUR EGUNGO ESKOLA

Irun. 1919. urtea.

Urte eta hiri honetan bertan izan zuen somera gaur egun gure eskolak, Lekaeneak. Eraikituzak 49.955,90 pezeta balio izan zituen. Irungo sutearen ondoren, 1936. urtean, maistra bakar batekin eskolak jarraitu zuen aurrera, adin guzietako neska-mutilak joaten zirelarik.

Tira ba... gazten denboran bidaiatxo bat egitera...

Baina, nolakoak ziren duela 100 urteko eskolak? Hasteko, momentuko moda zela eta, ikasle zein irakasleen janzkerari egingo diogu erreferentzia. Neskek belki gona motzak, mutilek praka motz eta galtzerdi luzeak (nolako hotza pasako zuten neguan) eta emakume helduek kasu honetan maistrek, gona luzeak eramaten zituzten. Ez zuten bakerorik, ezta zapatilarik erabiltzen.

Gorputz hezkuntzako klasea eta gero ezingo ziren dutxatut! Beraz, arropa berarekin geratu beharke zirent!

Zer osanik ez teknologiari buruz. Gaur honetan arbela digitala, fotokopiagailuak, inpresorak, Smart TVak, mini-portatilak, ordenagailuak, proiektoreak, altabozak, Wifia eta eskanerak ditugu eskolan... zenbat gauza ditugun! Lehen ez zen horrela. Lehen ez zeukaten pantailarik ezta ordenagailu sinplerrik ere ez. Arbela beltzak, tiza potoloak eta lumak erabiltzen zituzten. Abako handiak ere izaten zituzten geletan, egurrez eginiko lanak izaten ziren.

Duela 100 urteko **gizartea** ez zen gaur egungoa, noski; neska-mutilak benatuta egoten ziren. Batzuetan denok elkarrekin egoten ziren gela batean, eta kasu honetan eserita banatzen zituzten; neskek errenkada batean, mutilak, bestean.

Orain dela 100 urte distantzia handiagoa: zegoen irakasle eta ikasleen artean, izan ere, gelan, klaseak emateko, koska batzuetan igola zaudelarik ematen zituzten klaseak; batzuetan orain inguruan hesi laxki bat zutelarik.



Altzariak ere desberdinak ziren oso. Mahaiak eta aukiak erabat desberdinak ziren, "pupitreak" zituzten; egurrezkoak ziren hauek eta barmesaldean kajoia izaten zuten lanerako ikasleek behar zuten materiala bertan jasotzeko. Bankuetan esertzen ziren, egurrezkoak hauek ere. Arbel ilunak zituzten. Klanona lodiak. Lurreko egurrek, gaur egungo lauzak ordezkatzen zituzten. Mapek ere gelak hornitzen zituzten, ez ziren gaur egunekoak bezain koloretsuak izango, baina ziur beren lana betetzen zutela.

Nolakoak izango ote dira hemendik 100 urtebata gure gelak...?



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Euriari aurre egin dio Hip Hop egunak

Martxoaren 7an Hip Hop eguna antolatu zen Irungo Zabaltza plazan. Ekitaldia abenduaren 14rako antolatu zen hasiera batean, baina, eguraldi txarraren ondorioz bertan behera gelditu zen jardunaldia. Horren ostean, ekintza martxoaren 7an berrartu zen eta, eguraldiak lagundu ez arren, Zabaltza plazan kokatutako karpa bati esker, antolatutako ekintza guztiak aurrera ateratzea posible izan zen. Gainera, jardunaldiaren atzerapenari esker kartela hainbat emakumezko erreferenteekin osatzea posible izan da.

Rebeca González Gazteria eta Berdintasun ordezkariak, azaldu duenez, urtero kultura urbanoarkein lotutako hitzordu bat antolatzen du Irungo Udaleko Kultura arloko publiko gaztearen artean horrelako ekintzek izan ohi duten arrakasta ikusita. 2019. Urteko abendurako antolatutako ekintza bertan behera gelditu ostean, Gazteria eta Berdintasun ordezkariak azaldu du, "jardunaldiaren atzerapenak edukia eta mezua indartzeko aukera eman digu". "Jardunaldia martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzekin lotzeko aukera topatu genuen", gaineratu du Rebeca Gonzálezek.

Hip Hop egunaren inguruan, kontzertu eta erakustaldiez gainera, parkour eta breakdance tailer ezberdinak antolatu ziren. Horrela, abenduko datarako baieztatutako ekintzez gainera, DJ Lea, Maialen Arozenaren graffiti tailerra eta Sara Socas eta Erika 2Santosek Cot Djarekin osatutako taldea batu ziren Hip Hop eguneko egitarauera.

Gustu guztietarako ekintzak

Jardunaldiko ekintzak eguerdiko 12:00etan hasi ziren Kerok gidatutako Graffiti tailerrarekin. Tailer honen bitartez gazteek graffitiak margotzeko gorde beharreko distantziak, graffiti teknika eta estilo ezberdinak ezagutu zituzten DJ Learen musikaren erritmora. Izan ere, Leak estilo urbanoa erritmo aktualekin konbinatzen ditu eta, horri esker, Euskadiko eszenatoki nagusietako erreferente batean bihurtu da.

Eguerdiko 13:00etan Orodreth-ek Beatboxerako sarrera tailerra eskaini zuen Hip-Hoparen historia oinarri hartuta. Gainera, eduki teorikoaz gainera, tailerreko parte hartzaileek oinarritzko erritmoak eta Loopstation bat erabiltzen ikasi zuten. Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara Parkour tailerra antolatu zuen Add Lotzen elkarteak. Parkour modalitatean esperientzia zuten gazte zein hasiberriei zuzendutako tailerra izan zen. Horrela, parte-hartzaileek hiriko plaza eta kaleen egitura aprobetxatuz, korrika eta oztopoak gaindituz haien teknika



hobetzeko aukera izan zuten. Ordu berean, Maialen Arozena artista irundarrak graffiti tailerra zuzendu zuen, Rasy Simonek DJ tailerra gidatu zuen bitartean. DJ bizkaitarraren tailerrean gazteek scratch, turntablism edo samplea bezalako kontzeptuak ezagutzeko aukera izan zuten, haien lehen nahasketak egiteko aukera izan zuten bitartean.

Arratsaldeko 17:00etan, berriz, Crazy Hospitalek Breakdance tailerra antolatu zuen Breakdancearekin lotutako lehen mugimenduak irakatsi zituen toprock, footwork eta freezes pausuen bitartez osatutako koreografia baten bidez. 18:00etan Shintomak eta 19:15etan Vittersweet artisten kontzertuekin musikaz bete zuten Zabaltza Pla-



zan kokatutako karpa. Arratsaldeko 20:05 eta 20:20 bitartez Beatbox eta Breakdance erakustaldietarako tartea egon zen.

Azkeneko emanaldiaren arrakasta

Azkenik, Sara Socas, Erika 2Santos eta DJ COT jardunaldiari amaiera eman zioten haien musika emanaldiarekin. Taldea oilar borroketako erreferenteetako bat da haien freestylearen barnean errimak osatzeko azkartasunari esker. 20:30etan hasi eta 21:30etan amaitu zen emanaldian gainera, ikusleen parte hartzea bultzatu zuten, ikusle gazteei errimak sortzeko ohejuak proposatzea esaktuz edo haiekin batera esnezatokira igotzeko aukera emanaz.

BEZEROEN BEHARRETARA
EGOKITUTAKO DISEINUA

Zure negozioarako betidanik bilatu duzun online irudia

- ✓ Webgune korporatiboak
- ✓ Webgunearen diseinu berritzea
- ✓ Blogen diseinua

Diseinu grafiko eta web diseinuko estudioa

943 61 94 89 - 645 009 317

www.resttaestudio.es












Restta



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Begiraleen bila gabiltza!

San Martzial Eskaut taldean begirale boluntario berrien bila gabiltza 2020/2021 kurtsorako. Interesa izanez gero idatzi eskautsanmar@yahoo.com, 688 697 910 WhatsApp zenbakira edo instagrameko @eskautsanmar kontura.

Gainera, kurtsuan zehar edo udaran praktikak egiteko aukera eskaintzen dugu!

Irakasleentzako 1.148 plaza Euskadin

2020ko Hezkuntza LEP. Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasle eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako 1.148 plaza.

Epea: 2020ko martxoaren 18ra arte.



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Diseinatzaile gazteen lan-poltsa

Diseinatzaile gazteentzako lan-poltsa

Norentzat: Gaztea 18-30 urte bitartekoa izan beharko da edo enpresa adin tarte horretako gazteez osatua egon beharko da.

Izen-ematea: Lan-poltsan izena emateko porfolioa eta Curriculum Vitaea bidali beharko dituzu komunika@egk.eus helbidera.

Epea: Martxoak 27ko eguerdiko 12:00ak baino lehen.

Kontutan izango direnak: Bai gaztelaniaz bai euskaraz (EGA edo parekorik) lan egiteko gaitasuna izatea, maila altua, Euskadiko Gazteariaren Kontseiluaren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea eta EGKren estiloa, terminologia eta izaera ezagutzea.

Informazio gehiago: komunika@egk.eus helbide elektronikora idatz dezakezu edo 943429767 / 688675932 (Jon) zenbakira deitu.

"Ikasle gazteen esperientziak" / KONEKTA LABS

Jardunaldietan, hainbat titulazio egin dituzten ikasleak bilduko dira, ikasketetan izandako esperientziak kontatzeko: Titulazio horietako batzuk Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Zuzenbidea, Erizaintza, Komunikazioa, Gizarte Hezkuntza Nekazaritza eta abar luze bat dira.

Landu beharreko gaiak: aukeratutako ikasketen inguruko erabakia, helburuak eta espektatibak, baita ikastetxearen aukeraketa eta ziklo aldaketa prozesua ere.

Zatoz eta galdetu!

Eguna: Martxoak 14.

Ordua: 11:30etatik 14:00etara eta 16:15etatik 18:00etara.

Lekua: Palmera Montero Gunea (2. gela).



Martxoak

15era arte

Erakusketa: Bidaia bat baino gehiago

Zer: Hurria eta Ahmed haur errefuxiatu saharuier solasa.

Non: Palmera Montero gunean.

Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Sarrera: Librea.

Antolatzailea: Tadamun elkarte.

17

Ikastaroa: Bideo tailerra

Zer: Bideoa grabatzen duen edozein gailu erabiliz momentu ahaztezin horiek gorde eta erakusteko bideoak egiten ikasteko tailerra.

Non: CBA Udal liburutegiko areto balioaniztuna.

Ordua: 17:00etatik 19:00etara.

Izen-ematea: Telefonoz 943505421 zenbakira deituta.

Adina: Gazte eta helduentzat.

Oharra: Ikastaroa egiteko ez da aurretik inolako ezagutzarik behar.

18

Kontu kontari haurrentzat: "Galduta"

Zer: Virginia Imazen eskutik.

Non: CBA Udal Liburutegiko areto balioaniztuna.

Ordua: 17:30etan.

Prezioa: Doako sarrera.



Denbora-pasen emaitzak

A	D	S	K	A	P	D	E	P	S	A
T	I	R	S	O	T	I	A	I	O	
L	L	D	I	A	C	A	I	L	A	J
D	N	M	I	L	N	L	N	R	E	O
X	A	N	S	W	I	A	A	A	A	L
E	I	L	E	N	N	D	I	R	E	E
P	N	T	A	E	T	S	I	J	A	R
I	A	E	S	C	N	A	I	A	N	S
H	A	R	R	U	S	T	A	I	S	N
S	A	A	D	I	S	N	Z	A	M	C
R	I	A	A	G	N	S	U	A	T	I
R	A	T	A	E	C	M	N	A	A	D
A	A	X	R	O	I	S	S	A	I	A

5	6	1	4	2	7	5	3	9
5	2	4	8	8	3	8	7	1
7	9	3	5	8	1	2	6	4
3	5	1	7	1	2	9	4	5
9	1	2	6	3	4	7	5	8
4	7	8	8	9	5	3	1	2
8	4	5	2	7	8	1	9	3
2	3	7	1	4	9	5	8	5
1	8	9	3	5	6	4	2	7

22

Kontzertua: Xoel Lopez

Zer: Iberoamerikako agertoki independenteko musikari adierazgarrienetako bat.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Orokorra 21,2 euro eta murriztua 16 euro.

Salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

28

Adaxka dantza taldea

Zer: Adaxka dantza taldea osatzen duten talde guztien emanaldia.

Tokia: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 18:00tan.

Sarrera: 4,30 euro.

Salmenta: Luis Marianoko Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan ikuskizuneko egunean bertan.

28

Mendi irteera: "XIV orduko mendi martxa"

Zer: 3. etapa, Guardetxetik Tolosara.

Irteera: Bixeratik.

Ordua: Goizeko 7:00tan.

Prezioa: Bazkideak 15 euro eta bazkide ez direnek 18 euro.

Informazio gehiago: Irungo Mendizale elkartearen astearteetan eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara edo elkartearen web orriaren bitartez.

29

Musika: Irun Hiria Musika Banda

Zer: Irun Hiria Musika bandaren kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Librea.



Jaiamartzeak 2020



ERREPORTAJEA+ ALBUMA

155 €
-tik aurrera

Argazkilariak

Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com

